

**TRAFIKO-LAN ISTRIPUAK (ALT)**

E.A.E.ko UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN

"IN ITINERE" + "MISIOKOAK"

2015 – 2016 IKASTURTEA*Txostenaren zenb.: 13**Hezkuntza Saileko Lan arriskuen Prebentzioa**Segurtasun arloko arduraduna: Marivi Carazo Alcubilla**2017ko otsaila*

Txosten honen bitartez langileei honako hau aditzera eman nahi diegu: 2015-2016 ikasturtean gertatu diren trafiko lan- istripuak eta beraien ondorioak, beti ere, Lan Arriskuei aurre egiteko Zerbitzuari jakinarazitakoak webaren bitartez.

Era berean, lanaren ondorioz egin beharreko joan-etorriak direla eta langilearen segurtasuna aztertu eta sustatzeko helburuarekin gogorazten dizuegu:

- 1) Lan istripuen jakinarazpena egiteko esteka honen bitartez:
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/accidentes_trabajo/eu_sprl/adjuntos/acceso_y_mapas_2016_17_e.pdf (ZONALDEAK ikus)
- 2) Lanaren eremuko bide segurtasunari buruzko on-line ikastaroan izen-emateak: **ZORTE-KONTUA EZ DA:** http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-sprlcont/es/contenidos/informacion/seguridad_vial_cursos_16_17/eu_sprl/index.shtml





1. WEBaren BITARTEZ JAKINARAZITAKO LAN ISTRIPUAK (2015eko irailetik 2016ko uztaila arte)

A) LURRALDEKA


L.H	1	2	3	4	Guztira
Araba	59	-	-	-	59
Bizkaia	42	60	120	50	272
Gipuzkoa	137	57	-	-	194
					525

B) TRAFIKO-LAN ISTRIPUAK¹ : In itinere & misioan

ARABA:

Istripuaren tokia:

	Bajarekin	Bजारik gabe	Guztira
In itinere istripuak	13	8	21
Ikastetxean	16	21	37
Misioan edo Lanaldiko joan-etorrian	1	0	1
	30	29	59



¹ ALT: Trafiko- lan istripuak. Trafiko istripua: Espazio publikoetakoak, eta ibilgailuak, gidariak, bidaiariak edota oinezkoak partaide dituztenak.



Lan-Istripuak guztira A	In itinere & misioan	Trafiko-lan istripuak
59	22	14

"Ikastetxera **iladan** zihoan, Sarriko biribilgunera heltzen zegoela beste kotxe batek bere kotxearen kontra atzekaldetik jo zuen"

"Lainoa **eta izotza** zirela medio, Bilbao- Gasteiz autobidean kotxeak laprast egin eta beste kotxe bati kolpea eman zion"

"Laguardia herrian dagoen IES Samaniego ikastetxera zihoan, **biribil batek berea jo** zuen atzetik"

"Bere aurrean kotxe bat aparkatzen ziren bitartean **bera errepidean geldituta**, beste kotxe batek kolpea eman zion"

"Etxetik ikastetxerako bidean N-a errepidean, Olaberrian **atzeko talka anikoitza**"

"Lanera zihoan, **A-624 errepidean biribilen arteko aurrez aurreko talka**"

"**Txagorritxu biribilgunetik ateratzean**, beste kotxe batek eskuinaldean kolpatu zuen "


"Gamarran dagoen **semaforoaren zain** zegoela, beste kotxe batek jo zuen"

**BIZKAIA:****Istripuaren tokia:**

	Bajarekin	Bajarik gabe	Guztira
In itinere istripuak	26	29	55
Ikastetxean	67	137	204
Misioan edo lanaldiko joan-etorrian	5	8	13 ²
	98	174	272

Lan-Istripuak guztira B	In itinere & misioan	Trafiko-lan istripuak
272	68	18

Zonaldeak	In itinere & misioan	ALT
BZ1	9	2
BZ2	15	3
BZ3	33	6
BZ4	11	7
	68	18

**BIZKAIA BZ1 Zonaldea:**

"Ikastetxetik etxera gidatzen, Sollube portuan **errepidetik atera zen**"

"Lanerako bidean Txorierri autobidean **beste kotxe batek jo zuen**"

² Ez dira trafiko-lan istripuak: Santa Ageda egunean herritik abesten, auzotik kalejira egiten, barnetegiko logelan, txangoan Plentziako hondartzan, aholkularitza lanetan, Ametzola parkean aulki gurpildunean zegoen ikaslea garraiatzen, Ezcarayrako txango kulturean, Getxon txango batean, auzotik irteera batean, Miribilla parkean...

**BIZKAIA BZ2 Zonaldea:**

“Ikastetxera zihoan, La Avanzada errepidean erretentzioa zegoen, balaztu egin, **olioa edo gasoleoa** kaltzadan eta kotxeak ez zuten erantzun”

“Erretentzioa zela eta A-8an kotxe batek balaztatu zuen, ondorioz atzean ziren zazpi kotxek **talka anikoitza**”

BIZKAIA BZ3 Zonaldea:

“Bilbao- Mungia autobidean etxerako bidean veste kotxe batek kolpean eman zion”

“Eskolara etortzen, 635 PK-24 nazionalen **biribilgune** batean istripua izan zuen”

“Lanerako bidean **semáforo batean geldirik zegoela** furgoneta batek jo zuen”

“Lanera **motorrez zetorren**, Mazarredo con Ibañez de Bilbao kalean **oinezko batek semaforo gorria pasatu** , **errepidea korrika gurutzatu** eta elkarren artean **talka egin eta lurrera erori ziren**”

BIZKAIA BZ4 Zonaldea:

“**Urretako biribilgunean sartu** zen bere kotxea gidatzen beste auto batek ez zuen zedarik egin eta bere kontra jo zuen”

“BI- 2235 (Bermeo - Gernika) errepidean **erretentzio bat zela** medio geldirik egonda, beste kotxe batek atzekaldetik jo eta era berean berak aurrekoa”

“**Izotz beltza zela** eta kamioi batek la tijera izenekoa egin zuen karabana sortaraziz, beste kotxe baten kontra jo zuen”

“Euria zegoen, Lekeitio- Durango **errepidean olio geruza** (obrak ziren), laprast egin eta kontrako norabidean zetozen bi kotxeen kontra egin zuen”

“Autobidean **gurpila lehertu** zitzaion”




GIPUZKOA

Istripuaren tokia:

	Bajarekin	Bajarik gabe	Guztira
In itinere istripuak	28	20	48
Ikastetxean	45	93	140
Misioan edo lanaldiko joan-etorrian	5	2	5 ³
Beste toki batean	0	1	1
	78	116	194

Lan-Istripuak guztira G	In itinere & misioan	Trafiko-lan istripuak
194	53	34

Zonaldeak	In itinere	ALT
GZ1	41	27
GZ2	12	7
	53	34



GIPUZKOA GZ1 Zonaldea:

"Kotxea gidatzen zegoen, **semaforo batean geldirik** zegoela beste kotxe batek atzetik kolpea eman zion"

"Bidegorritik zihoan, laprast egin eta **bizikletatik lurrera** erori zen "

"GI-2134 errepidea bustita , kotxeko atzeko partea labaindu eta tronpoa eginez talka egin"

³ Trafikokoa 1 besterik ez da



"N1 errepidean km 453 Madrid norabidean istripu bat izan zen, begiratzean balaztatu nuen ,
kotxea labaindu eta hormigoizko erdibitzailearen kontra jo nuen"

"Villabona- Donostia autobidean aurreko kotxearen kontra jo nuen , airbagak ireki ziren"

"A-8 Km. 40 errepidean kotxearen kontrola galdu zuen (atestatua IKUS) "

"San Markosen **biribilgunera heltzean** balaztatu eta motorrak laprast egin zuen"

"Aparkalekutik ateratzen zegoela ,**maniobratzen zegoen** irakasle batek kolpea eman zion "

"Eskolatik **bizikletaz** bueltatzen zegoen, (egun horretan prestakuntza zuten) badotik ateratzen zegoen gidariak **ez zuen ikusi eta harrapatu** zuen"

"Zebrabidean **geldituta zegoen kotxe batean kopilotu gisa** egonik, kotxe batek atzekaldean jo zuen"

"Etxera oinez zihoan, errepidea guruzatzean **motorra batek harrapatu** eta lurrera erori
"Atzeko talkak sortutako istripua"

"Ikastetxetik bidegorritik **bizikletaz zetorren**, gurutzatu nahi zuen emakumezkoa ez zen konturatu eta Miren erori zen"

"N-1ean gidatzen zihoan **kontrola galdu**, **180°** gradu biratu eta ibaitik gertu dagoen hesiaren kontra joan"

"Oiartzungo **ordainleku biribilgunean** kotxe batek bere kontra jo zuen"

"Donostiako Boulevarretik motorra gidatzen **labaindu da**"

"Lanera **bizikletaz zihoan, balaztatzean** erori nintzen"

"**Autobusean zegoen, biribilgune batean oreka galdu** eta erori zen"

"Langilea **motorrez** zihoan aparkatzen zegoen **kotxe bat saihesten** saiatzean"

GIPUZKOA GZ2 Zonaldea:

"Auto batek hiru kotxe **aurreratu, lehenengoak balaztatu**, Leirek aurrekoari kolpea eman eta atzekoak Leireri"

"Lanpostura zihoan kotxearen kontrola galdu zuen **olio edota uraren** eraginez eta mendiaren kontra jo"

"**Motorra** gidatzen Calvario Mutriku errepidean, **artxintxarra zapaldu** , labaindu eta lurrera erori "

"Langilea **motorrez** zihoan eta auto batek **biribilgunean harrapatu** zuen"

"**Motorrez** zihoan, Itsasondon kurba batean aurrean zihoan furgoneta bati kolpea eman zion"



2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan webaren bitartez igorritako istripuak:

L.H	Istripuak		In itinere & misioan		Trafiko- lan istripua	
	2014-2015	2015-2016	2014-2015	2015-2016	2014-2015	2015-2016
Araba	37	59	14	22	3	14
Bizkaia	278	272	76	68	37	18
Gipuzkoa	97	194	40	53	23	34
Guztira	412	525	130	143	63	65

Istripuek eragindako lesio mota A: Araba, B: Bizkaia, G: Gipuzkoa (65):

A	B	G	
4	11	20	Azaleko lesioak (kolpeak)
9	5	8	Lokatzeak, zaintiratuak eta bihurrituak
1	2	2	Hezur-haustea
0	0	3	Lesio anitz

Lesionatutako gorputz-atala (65):

A	B	G	
11	11	8	Lepoa
1	1	7	Bizkarra
1	0	2	Sorbalda
0	0	1	Eskua
1	1	3	Hanka, belauna barne
0	0	1	Orkatila / Oina
0	1	3	Besterik
0	3	9	Gorputz osoa eta atal anitz